

Zerbitzuetan emango dugun tratua uneoro pertsonala izango da, lokal barruan oinarritzen baldin bagara. Hau da, ume eta haurrak zaintzerako unean eta beraien familiarekin batera harremantzean, konfiantza eta segurtasuna sustatuz, gure ekintzak eraginkorrak direla eta gure plangintza zuzenki eta gardentasunez aurkeztu.

Aldiz, bezeroekin online harremanean jartzen baldin badira, online zerbitzuak izango ditugu (webgunearen bitartez, telefonoz...), autozerbitzu eta laguntza automatizatua izango dute informazioz beteriko webgunea eskura izanda. Bertan gure enpresaren inguruko informazio esanguratsua jarriko dugu eta egunak nola kudeatuko genituzke, zein aktibitate mota egingo ditugun egunean zehar, etab. Norbaitek zalantzaren bat izanez gero, gure telefono zenbakia helaraziko diegu beraien zalantzak argitzeko.

Zerbitzu ezberdinen bitartez bezeroak erakarriko ditugu, hala nola: deskontu, bonu, harpidetzak, zozketak, eta inkesta ezberdinen bidez. Gure elkartean bere konfiantza jartzen badute, guran sinisten jarraitu dezaketela jakinaraziko diegu ere, aipatutako aukera horiek eskainiz eta kalitatezko zerbitzuaren bitartez.